

## **Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak bere graduako eta posgraduako diplomak banatu zituen Bidasoan.**

2014/05/29

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak 2013-2014 ikasturteko titulu akademikoak eman zituen, ostiralean, maiatzak 23, Bidasoako campuseko 35 ikasleri. Zehazki, Bidasoako campuseko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (GADE)-ko graduatuak, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako (LEINN)-eko graduatuak –lehen promozioa– eta Turismo Aktiboko Enpresen Sorrera eta Kudeaketa Masterra ikasi duten ikasleek jaso zituzten euren diplomak.

Tituluak emateko ekitaldia 18:00etan izan zen, FICOBAn (Gipuzkoako erakustazoka. Helbidea: Iparraldeko hiribidea, 43, Irun). Mondragon Unibertsitateko errektore losu Zabalak itxi zuen ekitaldia eta Enpresagintza Fakultateko dekanu Lander Belokik ireki zuen. Ekitaldi akademikoan, MIKeko (Mondragon Ikerketa kudeaketan) zuzendari nagusi David Sánchez Bote honako hitzaldi hau eskaini zuen: “Yo y la Organización” (Ni eta erakundea).

Ekitaldiko argazkiak:

<https://www.flickr.com/photos/enpresagintza/sets/72157644912597443/>

Diario Vasco-n agerraldia:

<http://www.diariovasco.com/bidasoa/201405/24/nuevos-graduados-campus-bidasoa-20140524001030-v.html>

